



-
- [Herriak](#)
 - [Abaltzisketa](#)
 - [Aduna](#)
 - [Albiztur](#)
 - [Alegia](#)
 - [Alkiza](#)
 - [Altzo](#)
 - [Amasa-Villabona](#)
 - [Amezketza](#)
 - [Anoeta](#)
 - [Asteasu](#)
 - [Baliarrain](#)
 - [Belauntza](#)
 - [Berastegi](#)
 - [Berrobi](#)
 - [Bidania-Goiatz](#)
 - [Elduain](#)
 - [Gaztelu](#)
 - [Hernialde](#)
 - [Ibarra](#)
 - [Ikaztegieta](#)
 - [Irura](#)
 - [Larraul](#)
 - [Leaburu-Txarama](#)
 - [Lizartza](#)
 - [Orendain](#)
 - [Orexa](#)
 - [Tolosa](#)
 - [Tolosaldea](#)
 - [Zizurkil](#)
- [Gaiak](#)
 - [Aisia](#)
 - [Ekonomia](#)
 - [Gizartea](#)
 - [Kirola](#)
 - [Kultura](#)
 - [Politika](#)
- [Komunitatea](#)
 - [Azken ekarpenak](#)
 - [Taldeak](#)
 - [Sinadurak](#)
- [Hedabideak](#)
 - [Irratia](#)
 - [Prentsa](#)
 -
 - [Bereziak](#)
 - [Argazki galeriak](#)
 - [Bideoak](#)
- [Zerbitzuak](#)
 - [Agenda](#)
 - [Iragarkiak](#)
 - [Zorion Agurrak](#)
 - [Eskelak](#)
-
- [Sartu](#)

[Tolosa](#)



Alde Zaharra, aspaldiko sagardoaren gotorleku

Itzea Urkizu Arsuaga 2014-06-10 13:47 [gizartea](#) [Tolosa](#)

Larunbat goizean Tolosako Letxuga kaleko Txaparro sagardotegi zaharra ezagutzeko aukera izango da, eskualdeko sei sagardo dastatzearekin batera



[Ikusi handiago](#) | [Argazki originala](#)

Xabier Garikanok oso gogoan ditu, oraindik, bera gaztea zela Letxuga kaleko Txaparro sagardotegian gizonetzkoek egiten zituzten parrandak. Bere aitonaren bidetik sortu zen Alde Zaharreko Kale Nagusiaren eta Letxuga kalearen arteko patioan dagoen sagardotegia. Izan ere, trinkete plazan eta Corazonistetan sagardotegi bana omen zuen aitonak, duela 100 urte.

Corazonisten eliza eraiki behar zutela eta, lekualdatu egin behar izan zuen establezimendua, eta, gaur egun, orduantxe bezala jarraitzen du.

Larunbatean erakusgai izango da hala nahi duten herritarrentzat, Tolosaldea Garatzenek antolatu duen sagardo-dastaketaren bidetik. Xabier Garikanoren azalpenekin batera, Mikel Garaizabal enologoak ere edariaren inguruko azalpenak emango ditu eta, jarraian, Tolosaldeko sagardoa dastatzeko aukera izango dute bertaratuek: Adunako Aburuza, Ikaztegiako Begiristain, Tolosako Eguzkitza, Lizartzako Goikoetxea, Tolosako Isastegi eta Adunako Zabala.

Aniztasun horren barruan zehaztasunak plazaratzeko sagardogileak euren ere bertaratuko dira Txaparro sagardotegi zaharrera eta, horrela, sagardo naturalaren ezaugarriak bereizten ikasteaz gain, zapore berriak ezagutzeko moduak ere azalduko dizkiete herritarrei.

Inork gutxiak ezagutzen du, gaur egun, Tolosako txoko berezi hori, baina, bost euroren truke, larunbatean bertan irekiko diete herritarrei. Bi saio antolatu dituzte horretarako, 11:00etan eta 12:15ean, eta izena eman beharko da aurrez. Horretarako, tour@tolosaldea.net helbidea nahiz 943 69 74 13 telefono zenbakia erabili ahal izango dira.

Aipatzekoa da, sagardo dastaketa edo kata horretan parte hartzeko sarrera kopurua mugatu egin dutela antolatzaileek, besteak beste, espazioaren berezitasunagatik. Horregatik, interesa dutenei ahal bezain laster izena emateko gomendioa eman nahi izan diete.

Tolosan 28 sagardotegi zirenekoa

1930eko hamarkadan 28 sagardotegi inguru omen ziren Tolosan. 45 urte igaro dira, jada, Tolosako Garikano sendiak Letxuga kaleko Txaparro sagardotegia itxi zuenez geroztik. Itxi, ordea, publiko zabalarari itxi zioten, gaur egun ere bertan ospatzen baitute, oraindik urtarilaren 6ko bazkaria.

Eta ez da gutxiagorako, txokoaren xarma kontuan izanda. Garai batean sagarrak prentsatzan zituen toleara jantoki bilakatu dute eskularen trebeziak, mahaia eta aulkia jarri, eta kupelek ere aurreko mendearen bezalaxe daude: ziririk gabe. Orain txotx-ik gabe sagardotegirik ez dela dirudien arren, antzina sagardotegietan ez omen zen halakorik egiten, eta gizonetzkoen plaza ziren leku haietan emakume bat aritzen zen kupeleko edaria zerbitzatzeko.

Zabaldur artikulua:

Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

»» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)

[Sign in with twitter](#) [Login with Facebook](#)

Tolosa / Gizartea

- [Miren Urkola: «Jai irekiagoen alde orain emandako pausoak, errepikatzearen ondorioz, ohitura bihurtuko dira etorkizunean»](#)
- [Jai parekideagoen bila joateko bidea herritarrekin egin nahi du Tolosako Udalak](#)
- [Datorren asteburua epelduko du sanjoanek ekarriko duten sua](#)
- [Ibilbideak errezetatuko dituzte osasun zentroko arduradunek herritarren osasuna hobetzeko](#)

- [Alde Zaharra, aspaldiko sagardoaren gotorleku](#)
- [Bonberenea Txaranga Gure Esku Dagorekin bat](#)
- [Stop Sanfilippo fundazioaren aldeko Kirol Eguna](#)
- [Aholku batzordean parte hartzeko deia egin du udalak](#)
- [Fracking-aren debekua sinatzeko deia egin du udalak](#)
- [ELAk lanpostu bakoitzaren bermean oinarritutako publikazioaren alde dagoela esan du](#)
- [Urkijok beste salaketa bat jarri dio Tolosako Udalarari](#)
- ['Zer ote da horren indartsu eta kementsu egiten gaituena: Tolosako babarruna'](#)
- [Ekitaldi ugari, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta](#)
- [Zumardiandiko kioskoa zabalik, bihartik aurrera](#)
- [Kondairen bidetik iritsitako jaia](#)



www.oskarbi.com



Jarraitu ataria.info



ataria.info

Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.
San Esteban, 20 Tolosa 20400
Telefona: 943 65 56 95
Faxa: 943 65 00 18
ataria@ataria.info

Publizitatea:

publi@ataria.info
661 678 818

LAGUNTZAILEAK:



[Codesyntaxek](#) garatua